

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 165. alea - 2012ko uztaila




**“Udara kulturaz blai!”,
txikien gozamenerako**



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAITIRUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel: 943 029 488 - 018 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

JL **Electronika**

Informatica Treneria informaticoa Osagai elektronikoa

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 938 601

Mazpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jl@informaticojl.com, jl@telefonica.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutzaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:

Juanma Oiartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

AKTIBIDEA



Ander Salegi

KOLABORAZIOA: Haika Aizpurua, "Deba". **05**
ALBISTEAK: "Urkamendiko Kondaira", Erreka Jazz, Iñaki Larrañagaren erakusketa... **06-07** **BERRIKETAN GAZTEA:** Agenda 21, Antton Kazabon... **11-14**
ALBISTEAK: Alternatibak, EAK, Aralarrek eta ezker abertzaleak

Harrera polita izan dute Zuhatzak etxeko txikientzat antolatutako euskarazko ikuskizunek. **10**

euren proposamen sozioekonomikoa aurkeztu dute. **15**
LABURRAK: Itxasmila Igeriketa Zeharkaldia, Gazteak eta sexualitatea... **16-17** **ZERBITZUAK:** **18**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak % 11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. **-Deban, adibidez, Zuhatza Berriketan herri aldizkariak % 40ko murrizketa izan du aurten (2012rako 1.500 euro gutxiago jasoko ditu)-**. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarriko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru-iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideok martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaiak

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa-mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru-laguntza politika aldatu eta hitzarmen-eredua ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntza-irizpideek pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta

elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak % 40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko.

Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Eider Carton (Elhuyar), Mikel Irizar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta Xabier Letona (Argia), Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen izenean

Mila esker, Deba!

Beno, aurtengo ikasturtea joan zaigu eta hurrengo ere gertu dugu. Zubi Guraso elkartetik eskerrak luzatu nahi dizkizuegu aurtengo ikasturtean ekintza ezberdinetan parte hartu eta lagundu duzuen guztioi.

Debako biztanle eta gurasook, zuei esker, ekintza atsegina eta dibertigarriak egin ahal izan ditugu:

***Olentzerok** Debako haurrak bisitatu zituen, eta haurrek euren gutunak eskaini zizkieten gainera. Mila esker Goaz Taldea, Luzaro ikastetxea, udaletxea eta ekitaldi honetan parte hartu duzuen guztioi.

*Aurtengo negu gogorak, asteburu arinagoak izan ditu **zinema-emanaldiei** esker. Mila esker Debako Ostolaza liburutegiari eta baita Kultur Elkarteari ere, pelikulak eta zuen instalakuntzak

erabiltzen uzteagatik.

*Aurtengo **Zubi Txiki** mundiala izan da. Debanatura eta Gaztelekuko lan paregabeak herri guztia kutsatu zuen, eta 150 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten birziklatzearen inguruko gynkanan. Zuekin lan egitea merezi du, benetan!

*Ezin ahaztu, bestalde, ikasturte osoan zehar **eskola kirolean** eta krosean parte hartu duzuen guraso eta laguntzaile guztiak. Zuek gabe ezingo genituzke asteburuetakoko ekintza hauek aurrera eraman.

Hurrengo ikasturtea ere, aurtengoa bezalakoa izatea espero dugu. Zuen laguntzarekin, seguru baietz!

Debako Zubi Guraso Elkarte



HAIKA AIZPURUA

DEBA

Egunak pasa ahala egoera ekonomikoa okertzen doa. Zulo beltz honek ez dirudi amaierarik duenik. Gauza gutxi egin ditugu, ordea, herri mailan egoera tamalgarri honi irtenbide bat topatzeko. Zer daukagu eta zer nahi dugu?

Uste dut herri turistiko batean bizi garela konturatzeko garaia badugula, turismoa baita herri honetako diru sarrera garrantzitsuenetariko bat. Aldiz, kanpotik datorrenari atea ireki beharrean itxi egiten dizkiogula dirudi. Oker gabiltza! Ez datoz inbasoreak! Daukagunak erakarrita datoz ahal duten mailan disfrutatzen, eta guk eurekin batera disfrutatzeaz gain uda pasa eta gero disfrutatzen jarraitzeko aukera izango dugu.

Egunero asko dira Santiago bidea egiten herri honetan geratzen direnak. Non dago, ordea, jende honek denak gaua pasa ahal izateko tokia? Eguzkia irten orduko asko dira gure hondartzetara hurbiltzen direnak. Non dago, ordea, jende honek denak aparkatu ahal izateko tokia? Egunero asko dira topa ditzakegun akatsak eta eurretari bat oso larria: gure izaera.

Barra atzean askotan entzun ditugu herriko turisten aurkako komentarioak. Askorentzat kanpotarrak traba besterik ez dira, baina bide honetatik gure buruari harriak botatzen dizkiogu. Ba al dauka herri honek bisitaririk gabe aurrera ateratzerik? Gogoratzen al dugu nolakoa zen gure herria orain

dela ez horrenbeste urte? Imajinatzen al dugu gure herriko lokalek atea ireki gero beste herrietara joan behar izango dugula erosketak egitera?

Aurrerapauso txiki bat egin du Deba ireki diren komertzioek ematen duten bizitzarekin. Herriak jasan duen aldaketa ez da kanpo itxura bakarrik, barrukoa ere bada, sortutako lanpostuen ondorioz. Ezin dizkiogu trabak ipini hazkunderari, guztiz kontrakoa behar dugu eta honek guztiak aurrera egin dezan jendea behar dugu inguruan. Egoera ekonomiko honetatik atera ahal izateko kontsumoa derrigorrezkoa da eta horretarako asko maite ditugun herritarrez gain, kanpotarrak ere maitatzen ikasi behar dugu. Baina hau debar guztion lana da.

Jaiak sustatu behar ditugu, aparkalekuak egin behar ditugu, garraio publikoak gehitu behar ditugu, azpiegitura asko hobetu behar ditugu,...


Baina honetaz guztiaz gain, zer daukagun eta zer nahi dugun argi izan behar dugu. Gu, debarrok, kontzientziatu egin behar gara!

Deba oso polita da, bai! Baina polita izatearekin bakarrik ezin dugu aurrera egin. Herriek, pertsonak bezala, kanpotik eta barrutik izan behar dute politikak. Azalekoak ez du luzerako balio, denbora gutxian nekatzen baitu.

Egin dezagun kanpotarrek disfruta dezaten guk geuk gehiago disfrutatu ahal izateko, bestela jai daukagu. Deba hobe batengatik!



“URKAMENDIKO KONDAIRA”



Azken urteetan herriko kondairak, ohiturak, tradizioa, ... biltzeko ahalegina egiten ari da Debako Udala; gauden tokira nondik eta nola heldu garen ulertzea, gure aurrekoen sinismenak, imajinarioa... ezagutzea garrantzitsua dela iruditzen zaigulako, aurrera egiteko. Horrela, **“Irulearen begiratokia”**, **“Alostorrea”** eta **“Hiru olatuak”** izeneko kondairak argitaratu izan ditugu lehenago.

Joan den urtean, herriko nagusien ahotsak biltzen ahalegindu ginen, beraien bizimodua ezagutzeko (<http://www.ahotsak.com/deba/> helbidean topa daitezke transkripzioak); udako solstizioa ospatzeko egiten den San Juan suaren ingurukoak lantzen ere saiatu ginen, kontaktak eginez, informazioa banatuz, ... Eta hirugarrenik, kostaldeko herri gehienek historia, balearen arrantzarera, kontatzen duen ipuina argitaratu genuen: Patxi Zubizarretak guretzat propio idatzitako **“Hiru egun balearen sabelean”**.

Aurten, Juan Venancio Arakistainek jasotako beste

kondairetako bat argitaratu dugu: **“Urkamendiko kondaira”**. Bikote baten maitasun-istorio tristea kontatzen du: mutilak destino petrala izango du, neskarekin ezkondu ahal izateko aberastasun bila, Itziarko Amaren altxorra lapurtzeko tentazioa izango baitu. Itziarren aurrera egin ezinik geratuko da eta bere atzetik datozenek harrapatu baino lehen, bere buruaz beste egingo du Urkamendin.

Kondaira herriari ezagutarazteko, Luzaro ikastetxeko 5. mailako ikasleek antzerki bidez erakutsi zuten istorioa, bi ekitaldi eskainiz horretarako: ekainaren 7an Itziarko plazan eta ekainaren 8an Debako plaza zaharrean.

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiogu Luzaro ikastetxeari. Eta, bide batez, **“Urkamendiko kondaira”** liburua salgai dagoela jakinarazi nahi diegu herritarrei -Arkatzan, Masillon eta Turismo Bulegoan eskura daitezke aleak, sei euroren truke-.

Udaleko Euskara Batzordea

“Gazta zati bat” dokumentalaren eta “Gartxot” filmaren emanaldiak

Nazioen Munduak herri ekimenak bultzatutako eta Jon Maia bertsolariak zuzendutako **“Gazta zati bat”** dokumentalaren emanaldiak antolatu zituen Debako Udalak ekainean -birritan proiektatu zen filma Kultur Elkartearen, eta behin Itziarren-.

Duela urte batzuk, Goierriko eskualdean Nazioen Munduak herri mugimendua sortu zen, autodeterminazioaren alde lan egiteko helburuz, baina betiere erabakitzeko eskubidea “beretz dagokigun zerbit” dela ulertuta, “eta ez eskubide politiko bat bakarrik”. Herri ekimenak Jon Maiarengana jo zuen, eta egindako lana kaleratzeko asmoz dokumental bat egitea proposatu zion bertsolariari. Bada, hark baietza eman, eta emaitza Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian eskaini zen lehenengoz.

Debako Udalak, herrian antolatutako emanaldien bitartez, dokumentalak oinarri duen planteamenduarekin bat

egiten duela adierazi nahi die herritarrei. “Autodeterminazioa izaera kolektiboa duen giza eskubidea da, nazioarteko zuzenbidean jasoa eta berriki nazioarteko komunitateak onartua eta demokratikoki egikaritua, besteak beste, Irlandan, Eskozian, Quebecen, Montenegron eta Hego Sudanen. Eskubide hau aitortzeak ez du ezer aurreikustea esan nahi, gizarteari bere etorkizunari buruz erabakitzeko gaitasuna eskaintzea baizik. Azken finean, euskal jendartea dela bere etorkizunari buruz erabaki behar duena esan nahi du, ez besterik”.

Ekainaren 29an, bestetik, **“Gartxot, konkista aitzineko konkista”** filmaz gozatzeko aukera ere izan zen Deban eta Itziarren, Udalaren ekimenez. Arturo Campionen narrazioan oinarrituz, Juanjo Elordi eta Asisko Urmenetaren zuzendaritzapean, XII. mendeko bardo edo kantari baten bizitza kontatzen du istorioak. Herriaren oroimena eta



kultura kantuaren bidez transmititzea zen bardoaren eginkizuna. Pertsona nabarmena izan ohi zen. Herriz herri istorioak, kondairak eta bertsoak kantatzen zituen, herriaren kulturaren garra bizirik mantenduz (...).

XII. mendeko Orreagan, Gartxot euskararen aldeko garrasi bat ere bada, baina orobat, Nafarroako konkista eta akulturazio prozesuak nola eta zeinen eskutik gauzatu ziren erakusten digu.

Debako Udala

I. Erreka Jazz musika jaialdia

Pasa den ekainaren 29an Erreka Jazz musika jaialdiaren lehen edizioa ospatu genuen erreka pasealekuan. Jende andana gerturatu zen jazz musikaz, saiheski, saltxitxa eta garagardoaz goatzera.

“Tritonman y el chico percebe” izan ziren eszenatokia igotzen lehenak. Nahiz eta giroa oraindik ez oso bero egon, bikotea bikain aritu zen taula gainean. Eta, afaldu ondoren, hamar eta erdiak aldera, “The Orbital Planets” taldearen emanaldia hasi zen.

Adin guztietako jendea hurbildu zen jazz doinuez goatzera. Giro paregabea zegoenez, saioa bi orduz luzatu zuten errepertorioa bukatu arte, tartean hainbat kolaborazio egon ziren gainera.


Debako Gazte Asanbladak jaialdiaren inguruko balorazio oso positiboa egin du. Hortaz, espero dugu hurrengo urtean ere jaialdia burutu ahal izatea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bertan jo zuten bi taldeei eta baita gerturatu zen jende orori ere.

Debako Gazte Asanblada



Iñaki Larrañaga artista eibartarraren “Laino giroa” margo erakusketa, ikusgai Elizako klaustroan



Debako Udalak urteroko erakusketa aurkeztu du Santa Maria Elizako klaustroan. Aurten gonbidatutako artista Iñaki Larrañaga Iglesias da (Eibar, 1931) eta “Laino giroa” izenburupean dakarren erakusketa uztailean eta abuztuaren egongo da ikusgai. Gainera, margolan horien bilduma katalogo batean jaso du Udaleko Kultura Sailak.

Artista eibartarrak Deban aurkezten duen margo bilduma bera 1986. urtean erakutsi zuen lehenengoz, Getariako sabairik gabeko etxe zahar baten hormetan. Orain, 26 urte pasa ostean, bere lanaren irakurketa berri bat egiteko aukera eskaini nahi dio publikoari, artelanak Elizako klaustroko argiaren eta isiltasunaren artean aurkeztuz.

Iñaki Larrañaga Goruntz taldeko partaide izan da, Fernando Beorlegi, Daniel Txopitea eta Marino Plazarekin batera.

Erakusketaren ordutegia: Asteartetik larunbatera: 11:00-13:00/17:00-19:00. Igande eta jaiegunetan, berriz, 18:00etatik 20:00etara.

Aitzuri eta San Pedro abesbatzen kontzertuak, Deban eta Zumaian

Aitzuri Abesbatzak eta Zumaiako San Pedro Abesbatzak bi kontzertu eskainiko dituzte uda honetan. Lehenengoa uztailearen 28an izango da, Deban (Santa Maria Elizan), eta bigarrena, abuztuaren 1ean Zumaian (San Telmo ermitan). Kontzertu horiek bi abesbatzek mimo handiz prestatutakoak dira. Gure kulturaren aspaldiko ohitura bat gogoratu, auzolanean egitea aberatsagoa denez, olatu erraldoi honetan murgildu gara buru-belarri.

Kontzertu hauek bi zatitan banatuko dira. Lehenengo zatian, Mozart-en *Koroazio Meza* abestuko da, Fernando Urainen zuzendaritzapean. Eta bigarren zatian musika desberdinez osatutako kantak izango ditu: *The Seal Lullaby* (Eric Whitacre); *I Never Knew* (Tom Pitts, Ray Egan eta Roy K. Marsh); *Areson Aleka* (David Azurza); *Loriak Udan* herrikoia; *Harm*: D. Azurza; *Ama Lur* Iker Gonzalez; *Hiru Titxo* Aita Donostia, Amaia Aldalurrek zuzenduta.

Bestetik, **Aitzuri Gazte Abesbatza ere laster izango da zuekin.** Datozen asteotan emango dizuegu horren berri.

Aitzuri Abesbatza

Biotopoaren ibilbideak eta gidaliburua aurkeztu dituzte



Biotopoko mendi-gida Debako Turismo Bulegoan eskura daiteke (12 euroren truke), baita Zumaiaiko Turismo Bulegoan eta Algorri Interpretazio Zentroan ere.

Deba eta Zumaia arteko kostaldea 2009ko otsailean izendatu zen Biotopoa. Eremua nazioarteko erreferente da geologian, eta bertako labarrak, paisaia eta bioaniztasun itsastarra ere interes handikoak dira. Horregatik, "Flysch" marka turismo-iturri garrantzitsu bihurtu da azken urteotan, eta turismo kulturala zein zientifikoa ekarri du zonaldera. Foru Aldundiaren datuen arabera, hain zuzen, 40.000 pertsona inguru hurbiltzen dira gure kostaldeko egitura geologiko horrek erakarrita.

Biotopoaren kudeaketa Foru Aldundiari dagokio eta, azkenaldian, instituzioa koordinazio zientifikoa, zabalkundea eta biotopoaren erabilpen publiko jasagarria bultzatzeko helburuarekin aritu da lanean. Horren adibide jartzen ditu Zumaiaiko estratotipoak, mundu guztian saritua izan zen "Haitzen hitza" dokumentala edo "Flysh Algorri Mendata" argazki-liburua. Oraingoan,

baina, beste urrats bat eman nahi izan dute: hiru urteko lanaren emaitza dela azalduta, biotopoa "zentzu guztietan" gozatzeko ibilbide tematikoak eta mendi-gida aurkeztu dituzte.

Zailtasun ezberdineko bost ibilbide

Biotopoa bisitatzen duen jendea "modu arduratsuan" bideratzeko helburuz ibilbide tematikoak sortu ditu Aldundiak.

Zailtasun ezberdineko bost ibilbide tematiko daude (Algorri, Elorriaga, Sakoneta, Lapari eta Talaia), eta guztira 21 kilometroko ibilbidea osatzen dute. Ibilbide guztiak egokitu egin dira "erabilpen txukuna eta segurua edukitzeko, betiere ingurua errespetatuz".

38 interes-puntu daude ibilbideetan zehar markatuak, eta puntu horiek guztiak biotopoko mendi-gidan azaltzen dira. Gainera, bost panel panoramiko daude biotopoko behatoki ikusgarrienetan jarrita; ibilbide bakoitzaren hasieretan

ibilbide horretako informazioa eta mapak erakusten dituzten panel bana jarri dira. Biotopoko sarrera nagusietan hasten dira ibilbideak, jendeak errazago topa ditzan. Eta Elorriaga eta Errotaberriko atsedenlekuetan hobekuntzak egin dituzte.

Bestetik, Geoparkeko mendi-gida biotopoko Asier Hilario arduradun zientifikoa idatzi du, 12 zientzialari eta komunikazio-adituren laguntzarekin.

240 orrialde ditu liburuak, eta bi zatitan banatuta dago. Lehenengoan, biotopoen interesgarriak diren gai guztien inguruko informazioa dago: klima, ozeanografia, landaretza, animaliak, kultura... eta gehienbat geologia (arroka motak, luraren historia, dinosauroen desagertzea eta abar). Liburuaren bigarren zatian, berriz, ibilbideetako 38 puntuen interpretazio fitzak ageri dira. Biotopoko gunen iragarrienak kotxez ezagutzeko proposamena ere badakar.

Santiago Bidea egiten duten bisitariak, mendi bidetik

Beste behin ere, udarekin batera, Santiago Bidea egiten duten bisitarien presentzia nabarmen handitu da gure herrian. Jatorri, adin eta izaera ezberdineko lagunak nonahi ikustea erraza da garai hauetan.

Orain arte, ibiltariak Debara Ollokitik jaisten ziren, autoek erabiltzen duten bide beretik. Baina ibilbide hori, euriarekin oso irristakorra bilakatzen da. Azken hila-beteotan, makina bat ibiltari irristatu da bertan eta horietako zenbait zauritu ere egin dira. Arazoari irtenbidea eman nahian, bide alternatibo bat prestatu da. Hormigoizko bidea erabili beharrean, haren paraleloan gelditzen den beste bide batetik bideratzen ari dira bisitariak, mendi-bidetik. Dena den, beti bezala, Debako San Roke ermitatik pasatzen dira orain ere ibiltariak.



MANUEL CALDERON LOPEZ VAGO marinel debarra

Aurten Matxitxakoko itsas gudua gertatu zeneko 75. urteurrena bete dela eta, borrokaldi hartan aritu zen Manuel Calderon Lopez Vago debarraren figura gogoratu nahi dugu lerro hauetan. Hona hemen zenbait datu:

1900. urtean jaioetako debarra. Pentsaeraz monarkikoa zen. Gipuzkoako arrantza munduan pertsona oso ezaguna zen; izan ere, Mac Mahon kanoi-itsasontziko komandantea izan zen 1928 eta 1930 urte bitartean eta, 1931 eta 1932 urte bitartean, Donostiako itsas armadako komandante-orde izan zen.

1936ko matxinada jazo zenean, Velasco itsas destruktoreko komandantea zela, matxino (nazional)en alde jarri zen. Gerra Zibilean zehar Canarias itsasontziko tiro-zuzendaria izan zen. Eta 1937 eta 1939 urte bitartean F. Francoren laguntzaile izan zen.

Matxitxakoko gudua:

1937ko martxoaren 4an, Bizkaya, Gipuzkoa, Donostia eta Nabarra Euskal Jaurlaritzaren menpeko itsasontzi(bou)ak Baionatik atera ziren Galdames ontzia babesteko. Matxitxako bataila sortuko da:

Canarias itsasontzi nazionala, S. Moreno kapitainarekin eta M. Calderon Lopez Vago debarraren tiro-zuzendaritzapean, Galdames ontzia gerarazteko asmoz atera zen, errepublikarentzako hornidurak eta armak zeramatzalako. Hurrengo egunean, euskal bouek Canarias ontziarekin egin zuten topo. Canariasek Gipuzkoa boua atzeman zuen eta eraso egin zion: sutea eragin zuen bertan. Gipuzkoa ontziak, larri geratu arren, lehorrera iristea lortu zuen. Beste bouak Canariasekin aurrez aurre geratu ziren, eta horrek Galdames ontziari egin zion eraso; Galdamesek amore eman behar izan zuen. Nabarra bouak, berriz, aurre egin zion Canarias ontziari, baina ordu eta erdi tiroka aritu ostean, hantxe hondoratu zen Nabarra. Bizirik irten zirenak Canarias ontziaren eskuetan erori ziren eta, hilabete batzuk geroago, Gerra kontseilua egin zieten. Heriotza-zigorra ezarri nahi izan zieten.

Baina, 1938ko azaroan, Francoren lagun zen M. Calderonek indultua lortu zion, "heroiak zirelako", eta askatu egin zituzten. Gainera, M. Calderon bera arduratu zen Nabarra bou ontzikoei ahal zuen arlo guztietan laguntzen; esaterako, lana topatzen, diru-maileguak lortzen...

II. Mundu Gerran, M. Calderon Lopez Vago debarrak Bidasoako itsas armadako komandanteburu zela (1939-45), eta



Manuel Calderon Lopez Vago (ezkerrean)
eta Nabarra bouko marinel bat.



Nabarra bou, 1937ko otsailan. (Irudia: Foru Aldundia)

frantziar militarrik naziengandik ihesean ari zirela, Hendaia herria hartu zuen. Horrela, hainbat pilotu aliatu babestu zituen.

Denboraz, M. Calderon debarrak frankismoan prestigioa galdu zuen, zenbait "affaire"n ondorioz: adibidez, Santander hiriko itsas armadako komandante zela (1945-47) artxiobak erretzea agindu izana, edota La Argentina itsasontziaren inguruko zenbait gastu desbideratu izana.

1947. urtean, Donostiako itsas armadako buru izan zen. Handik aurrera, kontralmirante zelarrik, goi-destinorik gabe geratu zen. Hala ere, aurretik zetorren Nabarra bou-ko kideekiko adiskidetasuna ez zen sekula amaitu.

Juan Mari Gurrutxaga

Lan taldea sortu da Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 75. urteurrenaren bueltan egitasmo ezberdinak burutzeko asmotan

Santoñako Barriako hondartzan, 1937ko urriaren 15ean faxistek hamalau lagun fusilatu zituzten, eta horien artean zegoen herriko alkate genuen Polentzi Markiegi (39 urte zituen orduan).

Polentzi gazte-gaztetatik aritu zen Euskal Herriaren alde lanean. Bere bizitza osoa bi zutabetan eraikita dagoela esango genuke: Aberria eta Kristautasuna. Horrez gain, Deban eta Itziarren badira oraindik ere Markiegiren

lanaren berri ematen diguten hainbat azpiegitura eta eraikin.

Bere fusilamenduaren 75. urteurrena dela eta, haren izena eta izana zabaldu eta ezagutarazteko lan talde bat osatu da azken asteotan. Dagoeneko bi batzar burutu dituzte, eta hurrengo hitzordua uztailaren 23rako deitu dute (19:00etan, Zuhatza elkartearen lokalean).

Lan taldeko kideek aurreratu dutenez, urriaren lehen hamabostaldian

burutu nahi dituzte urtemugaren bueltako ekimenak (argazki erakusketa bat, hitzaldiak zein ekitaldi xumeren bat, besteak beste). Eta hori guztia prestatu eta aurrera ateratzeko lanean hasiak dira dagoeneko. Dena den, lan taldea irekia da, eta interesa duen edonork parte har dezake bertan. Beraz, uztailaren 23ko batzarrean parte hartzeko deia luzatu nahi die lan taldeak herritarrei.

Harrera polita izan dute Zuhatzak etxeko txikientzat antolatutako euskarazko ikuskizunek. Eskerrik asko guztiei!



"Udara kulturaz blai! Haur eta gazte, hurbildu alai!" lelopean, Zuhatza Euskara Elkartek hainbat kultur ekimen burutu ditu azken asteotan. Herriko aisialdi-eskaintza aberasteko asmoz, eta etxeko txikienak protagonista egin nahian, euskarazko hiru ikuskizun antolatu ditu uztailean.

Aurreikusitako egitaraua errespetatuz, Animagic taldeak "Txolo Hegalari Tontolo" izenburuko antzerki-saioa eskaini zuen uztailaren 3an, Zumardian (hari dagozkio goiko irudia zein aldizkariko azalekoa).

Astebete beranduago, hilaren 10ean, Zirkun Zirko taldearen bisita izan genuen, eta "Tina" antzezlanaren aurkezta zuen. Lehen hitzorduan ez bezala, bigarren honetan eguraldiak ez zuen askorik lagundu, eta ekimena Aldats pilotalekuan burutu behar izan zen (irudia goian duzue, eskuinean).

Hilaren 17an, Begira taldeak eman zien amaiera Zuhatzak uztailean antolatutako ekimenei, abestiz eta dantzaz beteriko "Disko txiki" haur-berbenarekin.

Urtero legez, Zuhatza elkarteak gustura dago ekimenei izan duten harrerarekin. Beraz, eskerrak eman nahi dizkie

hitzorduetan parte hartu duten guzti-guztiei, alegia, elkartearen deialdiari erantzun zioten artista eta konpainiei zein, nola ez, emanaldietara hurbildu ziren herritar guztiei. Mila esker!!!

Aurtengo postal lehiaketa

Bestetik, aurtengo postal lehiaketa antolatu du Zuhatzak, herritarren oporraldiak ezagutu eta uda partean haien nondik norakoen berri izateko. Edonon izanda ere euskaraz idaztea posible delako, animatu parte hartzera! Bi lagunentzako afari goxo bat dago jokoan!

Lehenengo urratsa aurkitzen zaren lekuko postal polit bat lortzea izango da (inguruko leku batera eginiko irteerak ere balio du). Bigarrenik, deskribapena hartuko da kontuan: lekuarena, jendearena, izandako inpresio pertsonalak... (laburra izatea komeni da). Ez ahaztu zurekin harremanetan jartzeko telefonoa edo izena jartzea!

Postala posta-zerbitzu arruntez bidali behar duzu zigilu eta zigilu-markarekin, irailaren 14a baino lehen. Helbidea: Ifar kalea, 12 behea. 20820 Deba.

Zuhatza Euskara Elkartearen ezohiko batzar orokorra bertan behera geratu da

Zuhatzak ezohiko batzar orokorra deituta zeukan uztailaren 18rako, baina bertan behera geratu da. Debabarreneko euskara elkarteak eskualde mailako euskarazko proiektu bateratu sendo bat prestatu nahian dabilta azkenaldian, eta ekainaren 26an gai horren inguruko batzar informatiboa burutu zuten Zuhatza elkarteak bazkideek. Hurrengo urrats bezala planteatzen zen uztaileko ezohiko batzar orokorra ere, baina erabakitze-prozesuari lotutako eginbehar batzuk direla eta, erabakia hartzeko unea atzeratu beharra ikusi du elkarteak.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA


"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

BERRIKETA GAZTEA

2012ko uztaila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

AGENDA 21, HELBUKU BERRIEKIN



Ekainaren 7an Luzaroko eta Mendatako ikasleak udaletxean izan ziren helburu berriak lortzeko proposamenak egiten. Bertan, alkateordeak, ingurumen teknikariak eta Agenda 21eko arduradunak erantzun zieten.

Lehenengo proposamenak Luzaroko ikasleek egin zituzten. Nikolasek eta Maitek, urtean zehar egindako galdeketa emaitzen bidez, etxetik eskolara eta eskolatik etxerako bidea oztopoz beterik dagoela azaldu zuten. Paulak eta Josuk esan ziguten arazoak honako hauek direla: txakur kakak nonahi, zebra-bideak leku desegokian eta espaloio estuak. Alkateordearen erantzuna honakoa izan zen: txakur jabeak arazoak ohartzeko, herrian zehar pegatina batzuk jartzea gorotzak identifikatutako leku bakoitzean; zebra-bideei dagokienez, ordea, konponbidea zailagoa dela esan zuten, ezin omen dira horiak edozein lekutan jarri, baina poliki-poliki proposamena aurrera eramango dutela adierazi zuten. Azaldutako hurrengo kexa espaloioak estuak izatearena izan zen, eta espaloioak handitzea eskatu zuten; Udaleko kideek erantzun zuten hori dagoeneko plangintzan dagoela, eta ari direla poliki-poliki, ahal den neurrian, espaloioak zabaltzen.

Jarraian, Mendatako ikasleek euren proposamenak egin zituzten. Mirenek eta Amaiak urratsez urrats urtean zehar eginikoa azaldu zuten. Jon izan zen honako proposamena egin zuena: Itziartik Debara bitarteko autobus zerbitzua urria eta ordu desegokietan gauzatzen denez, ordutegi malguagoa eta maiztasun handiagoarekin egitea. Udalak erantzun zuen zerbitzu hori Foru Aldundiak

ematen duela, eta duela gutxi eskatu dutela zerbitzua ugaritzea; beraz, saiatuko direla poliki-poliki proposamen honi erantzuna ematen, baina ezin diotela Aldundiari gehiegi eskatu, eta gutxiago krisi garai hauetan. Jarraian, Mirenek eta Maialenek bizikletentzako aparkaleku gutxi dagoela esan zuten, eta bizikletak leku desegokietan (lurrean, espaloian...) egoten direla. Horregatik, aparkalekuak ugaritzea proposatu zuten. Ingurumen teknikariak azaldu zuenez, 2010ean bizikleta bide-sarea martxan jarri zen. Arazoa da udan aparkalekuak gainezka egoten direla, baina neguan, berri, hutsik; ondorioz, erdibidekoren bat aurkitu behar dutela. Segidan, Jonek eta Enekoek eskolarako aldapa eta oztopo ugari daudela azaldu zuten, eta kiroldegia eta Luzaro arteko bidea txukuntzea eta Mendatako ikasleentzat bertatik sarrera egitea proposatu zuten. Egoera ekonomikoa kontuan harturik, teknikoekin bidea aztertu eta proposamen hori erantzuna ematen saiatuko zirela esan zuten.

Azkenik, Josebak alboko herrietara oinez edo bizikletaz joateko bide gorria egitea eskatu zuen, bide nagusia hartu beharrik ez izateko. Eta Udalak Gipuzkoa mailan bide gorrien sarea badagoela eta, hau moldatzekoan dabiltzanez, Debakook bide honekin elkartzen den bide gorri bat egin dezakegula azaldu zuen; beraz, esperoan daude. Eta bukatzeko, eskatu zen frontoian alokatutako ordutegiak agerian jartzea, jendeak alferrik itxaron beharrik ez izateko.



ELKARRIZKETA

Oraingo honetan, Antton Kazaboni egin diogu elkarrizketa, 2. DBHkoei hitzaldia ematera etorri baita. Mendatako ikasleek bere lan bat antzestu dute Anttoni harrera egiteko.

“Pilotan jokatzeari nahi nuen bakarria, eta eskola ez zitzaidan batere gustatzen”



Antton Kazabon Oiartzunen jaio zen 1954. urtean. Haur eta gazte literatura idazten du, poesiaz gain. Bere lehenengo saria 13 urte zituenean irabazi zuen, Gabon lehiaketa batean. Geroago maisu ikasketak egin zituen, eta dagoeneko 44 liburu idatzi ditu.



Noiz hasi zinen literatura idazten?
1987. urtean hasi nintzen.

Zein izan zen zure lehen liburua?
“Proxpero”.

Zerk inspiratzen zaitu liburuak idazteko?
Ez dakit, inspirazioa edozein tokitatik etor daiteke, eguneroko gauzetatik... Hala ere, batzuetan nire ikasleengan oinarritzen naiz, liburuak idazteaz gain irakaslea bainaiz Oiartzunen.

Nola bururatzen zaizkizu liburuaren izenburuak?
Izenburuak jartzea, normalean, azken gauza izaten da.

Asko idatzi duzu. Zein izan da zure libururik arrakastatsuenak? Eta gutxien gustatutakoa? Espero al zenuen?

Gehien saldutakoa “Momolo” (gazteentzako liburua) dela uste dut; zazpi edizio atera ditut. Baina niri asko gustatzen zaidana “Piercing-a zilborrean” izenburukoa da. Gutxien gustatutakoak, berriz, hasierakoak dira, lehenengo liburuak baitziren.

Txikitatik irakasle edo idazle izan nahi zenuen, Antton?

Ez, ez! Txikitan pilotan jokatzeari nahi nuen bakarria, eta eskola ez zitzaidan batere gustatzen.



INKESTA

UDARA

- 1.- Zer egun gustatuko litzazuke iristea? Zergatik?
- 2.- Udan zer egiteko asmoa duzu? Nonbaitera joango zara?
- 3.- Zer da udan gehien gustatzen zaizuna egitea?
- 4.- Beste herrialde batera joango zara, hizkuntza bat ikasteko?
- 5.- Inguruko herrietako festetara joaten zara?



Kevin Garcia:

- 1.- Eskolako azken eguna, oporrak hartzen ditugulako.
- 2.- Surf egiteko asmoa dut, eta ez dakit nonbaitera joango naizen.
- 3.- Surfa, noski!
- 4.- Ez, ez naiz inora joango.
- 5.- Festa guztietara joaten naiz.



Ainara Garate:

- 1.- Oporrak. Jai delako.
- 2.- Lagunekin ibiliko naiz. Kanpora joango naiz, baina ez dakit nora.
- 3.- Lagunekin ibili nahi izaten dut.
- 4.- Ez.
- 5.- Tokatzen direnetara.



Alex Treku:

- 1.- Eskolako azken eguna, oporrak hartzeko.
- 2.- Hondartzara joateko asmoa dut, baita Madrilerara ere.
- 3.- Igeri egitea gustatzen zait.
- 4.- Ez, ez naiz joango.
- 5.- Oraindik ez dut horretan pentsatu.



Javi Lorenzo:

- 1.- Oporrak hartzekoa, oporregatik.
- 2.- Hondartzara joango naiz. Bai, Dominikar Errepublikara noa.
- 3.- Hondartzara joatea eta futboleko jokatzeko gustatzen zait.
- 4.- Ez.
- 5.- Elgoibarko festetara.



Jokin Aranceta:

- 1.- Oporrak hartzen ditugun eguna, horregatik, oporregatik!
- 2.- Hondartzara joateko asmoa dut, eta ez dakit kanpora irtengo naizen.
- 3.- Lagunekin egotea dut gustuko.
- 4.- Ez, ez dut uste.
- 5.- Debakoetan bakarrik gelditzen naiz.



Maialen Rosa:

- 1.- Udako lehen eguna, eskolarik gabe gaudelako.
- 2.- Gauza asko, oporretara joan, lagunekin egon...
- 3.- Lagunekin egotea gustatzen zait.
- 4.- Bai. Irlandara noa ingelesa ikastera.
- 5.- Ez daukat argi.



Itziar Larramendi:

- 1.- Kontrolak bukatzen diren eguna, gehiago ikasi behar ez izateko.
- 2.- Deban geldituko naiz, ez dakit kanpora irtengo naizen.
- 3.- Hondartzara joatea gustatzen zait.
- 4.- Ez, ez noa.
- 5.- Mutriku, Elgoibar, Iruñea, Itziar, Eibar... herri askotara.



Iratz Fernandez:

- 1.- Eskola bukatzen den eguna, oporrak hasten direlako.
- 2.- Potroak ukitu: lo egin, hondartzara joan... Oraingoan, Ezkaraira noa.
- 3.- Eskolara ez etortzea eta berandu esnatzea dut gogoko.
- 4.- Bai, Ingalaterrara.
- 5.- Mutrikuko eta Itziarko festetara.



Mara de Maria:

- 1.- Oporrak hartzen ditugun eguna, oporrak datozeelako.
- 2.- Kanpora joango naiz, Burgosera.
- 3.- Lagunekin kalera joatea.
- 4.- Ez.
- 5.- Debakoetan bakarrik ibiltzen naiz.



Itziar Iriondo:

- 1.- Oporrak hartzen ditugun eguna.
- 2.- Zaldian ibili. Balear Uharteetara noa.
- 3.- Hondartzara joatea.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai, Eibarrera.

GAILEAK: AINHUA AZKARATE ETA LEIRE ALBERDI

LITERATUR LEHIAKETA



Urtero bezala, Zuhatza elkarteak Mendata institutuaren laguntzaz literatur lehiaketa antolatu du. Sari banaketa ekainaren 11n izan zen eta Koldo Aperribai eta Iñaki Elosua etorri ziren hitzordura. Mendatako liburutegian sariak banatu zizkieten hemen aipatzen ditugun irabazleei:

1. zikloan: *narrazio generoan*, Malen Egaña eta Mikel Elorza. *Olerkian*, Aitor Gonzalezek bigarren saria lortu du.

2. zikloan: *narrazioan* hiru lan parekatuta geratu dira, eta euren artean banatu da saria: Irantz Alberdi, Josune Arakistain eta Itziar Larramendi. *Olerkian*, Maria Zubia eta Maddi Astigarraga. **Zorionak eta eskerrik asko parte-hartzaile guztiei!** (*Oharra: Lan sarituak **Berriketan**-ek kaleratuko ditu, abuztuan).

Era berean, aprobeztatu nahi dugu batetik, Foru Aldundiko Ziber Komiki lehiaketaren irabazlea, Maite Vikandi, eta bestetik, institutuko Liburutegian antolatutako Argazki Lehiaketako irabazlea, Miren Berasaluze, zoriontzeko, eta baita parte-hartzaile guztiei eskerrak emateko ere.

DenBord-pasaak

GURUTZEGRAMA 6x6

Ezker-eskuin:

- 1.- Kapelua
- 7.- Aimenta
- 8.- Eguzkiaren jainko egiptoarra
- 9.- Nafarroako urtegia
- 10.- Jardun, eragon
- 12.- Kontsonante bikoitza
- 13.- Apustua
- 15.- Pertsonak edo gauzak kritikatzeko eta barregarri uzten dituen obra.

Goitik behera:

- 1.- Hats, usain txar
- 2.- Lokarria, lotura
- 3.- Haur hizkeran, musua
- 4.- Arraioa!
- 5.- Azkar, berehala
- 6.- Hutsa, errua
- 11.- Pausaldi (alderantziz)
- 14.- Pare bat

1	2	3	4	5	6
7					
8			9		
10		11		12	
13			14		
15					

ALBISTEA



HEZKUNTZAN MURRIZKETARIK EZ!

Luzaro ikastetxeko eta Mendata institutuko irakasleek, beste herri askotan bezala, elkarretaratzea egin zuten maiatzaren 31n udaletxe aurreko plazan, krisi garai honetan agintariek bideratzen dituzten murrizketak Hezkuntzan ere zuzenean eragiten ari direla salatzen. Hezkuntzan murrizketak izateak guztion etorkizunera ekariko ditu ondorioak; oraingoan, aurrera jarraitzeko laguntza berezia behar duten ikasleak aterako dira kaltetuen. Hezkuntzan murrizketarik ez!

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2011-2012

Nerea Agirregabiria Ane Baroja
Leire Alberdi Alaitz Escudero
Sara Anton Ena Esmoris
Ainhoa Azkarate

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Alternatibak, EAk, Aralarrek eta ezker abertzaleak euren proposamen sozioekonomikoa aurkeztu dute Deban



“Irtenbidea badago. Eraldaketa soziala eta burujabetza” izen-burupean, Alternatibak, Aralarrek, Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak euren proposamen sozioekonomikoa aurkeztu zuten ekainaren 25ean, Debako Agirre Jauregian. Maider Otamendi eta Jone Etxeberria izan ziren hizlariak.

Euren iritziz, “bizi dugun egiturazko krisiaren aurrean, alternatiba integral bat osatzea ezinbesteko premia da gaur egungo egoera politikoan”. Eta premia horri erantzuteko asmoz, alegia, bestelako eredu sozioekonomikoaren bidean lehen urratsa ematea erabaki dute, elkar harturik. Erabaki horren emaitza aurkeztu zuten, hain juxtu, Debako hitzaldian, “Proposamen sozioekonomikoa” deitutako dokumentuaren muina herritarrei azalduz.

Hitzaldian nabarmendu zuten bezala, aurkezten duten proposamen horren izaera irekia da; “proposamena ez dago, inondik inora, itxia”. Are kontrara, akordio estrategikoko zabalera lortze bidean, euskal herritar eta eragileen ekarpenekin osatu nahi dute proposamena. Eta, horretarako, mekanismo



eta tresna ezberdinak jarri dituzte martxan.

Proposamen osoa jasotzen duen dokumentua eta laburpena www.irtentidea.net atarian daude eskuragarri. Dena den, egoerari aurre egiteko proposatzen dituzten sei neurri nagusiak hemen azpian bildu nahi izan ditugu.

EHBilduk sei neurri proposatzen ditu egungo egoerari aurre egiteko:

1.- Austeritate ekonomikoak krisia luzatuko du, beheraldi amaigabearekin. Gipuzkoak jarritako **erreforma fiskala** Bizkaia, Araba eta Nafarroan aplikatuko balitz, **500 milioi euro** era justu eta progresiboan jasoko liriteke.

2.- Urgentziazko neurria: egiten ari diren **azpiegitura erraldioen moratoria**. Eztabaida soziala bultzatu eta **500 milioi euro** baino gehiago aurrez daitezke, gastu soziala ziurtatu ahal izateko.

3.- **Sektore publikoa, gastu soziala eta zerbitzu publikoen** aldeko apustu argia egin behar da. **Zaintza ekonomia** aintzat hartu eta **emakumeen lan merkatura** atek irekiz. Gastu sozialean eta zerbitzu publikoetan inbertitza ekonomia-aren, jendarte ongizatearen eta bizi-baldintza duinen aldeko **inbertsioa** da.



4.- Baliabideen zati bat aurrekontuetan beste ekoizpen eredu bat sortzeko erabili beharko litzateke elikadura burujabetza ziurtatzeko. Eta ehun produktiboa berritu, birsortu eta dibertsifikatu beharko da. **Helburuak: jendartearen onura, enplegu sorkuntza, ingurumenaren defentsa, energia aurrezpena eta balio erantsi handiko sektoreen sustapena.**

5.- **Eredu sozial eta ekonomikoari buruzko benetako eztabaida** behar dugu. Eskualdez eskualde egitea proposatzen dugu.

6.- **Banka nazional eta publikoaren** aldeko apustua egiten dugu. Kutxabanken pribatizazioari aurre eginez, banka publikoaren inbertsioak gehiengoaren onurak

bermatzera bideratu behar dira, planetaren muga naturalak babestuz eta pertsonen beharren arabera ordenatuz.

40 gaztek eta 207 helduk parte hartu dute Debako V. Itxasmila Igeriketa Zeharkaldian



Ander Salegi



Ander Salegi

Uztailaren 7an Igeriketa Zeharkaldia egin zen hondartzan. Eguraldi paregabea izanda, ikusle asko hurbildu ziren lasterketa ikustera, baina parte-hartzaileen kopurua bera ere ez zen makala izan: 40 gazte (14 urte artekoak) eta 207 heldu, guztira. Arrakasta handiz ospatu zen, beraz, Debako V. Itxasmila.

Hamaika urte artekoak aritu ziren lehian lehendabizi, eta 150 metroko ibilbidea egin behar izan zuten igerian. 11-14 urte artekoen txanda izan zen gero (500 metroko ibilbidea egin zuten), eta helduek, azkenik, 1.856 metro zeharkatu behar izan zituzten.

Parte-hartzaile gazteenei dagokienez, Ion Osa izan zen nagusi mutilen artean eta Maite Barruetabeña neskatoen artean. 11-14 urte bitartekoaren artean, Erik Ugarte eta Iban Olariaga (5'27) nagusitu ziren, eta nesken artean Miren Sanz izan zen bizkorrena (5'33").

Helduen kategorian, bestetik, honako hauek izan ziren lehenbiziko hirurak gizonezkoetan: Martin Azpiri

(24'34"), Markel Alberdi (24'46") eta Jon Mujika (24'53"). Emakumezkoen artean, berriz, ondoko hirurak: Nora Varela (25'19"), Ioar Urkiri (25'50") eta Ana Vega (26'18").

Debako parte-hartzaileei dagokienez, Iñaki Gil eta Gotzone Aizpurua izan ziren igerilaririk trebeenak.

Aurtengo Igeriketa Zeharkaldian inguruko hainbat herritatik etorritako lagunak aritu dira lehian. Helduen artean, adibidez, Jaime Caballero distantzia luzeko txapeldunaren eta Ander Romarate Londreseko Joko Paralinpikoetarako deitutako igerilari eibartarraren parte-hartzea nabarmendu daitezke. Era berean, ezin aipatu gabe utzi Fran Quintanilla 79 urteko kirolari handiak ere ItsasMila bete duela. Zorionik beroenak parte-hartzaile guztiei!

Iaz egin zen moduan, aurtengo hitzorduak Esklerosi Anitzaren Fundazioaren "Busti Zaitetz" kanpainarekin bat egin du; gaixotasun hori duten pertsonen elkartasuna adierazi eta sentsibilizazio soziala lortzea bilatzen du ekimenak.

220 lagun elkartu ziren Debabarreneko BTT Martxan

Uztailaren 1ean egin zuten laugarren urtez Debabarreneko BTT Martxa. Euriak eta lokatzak are gogorragoa egin zuten ibilbidea. Hala ere, eguraldiari aurre eginez, Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako 220 lagun elkartu ziren, baita Alcalá de Henares eta Burgosetik etorritakoak ere.

Debegesa agentziak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eskualdeko BTT klubekin laguntzarekin antolatutako martxa herrikoia da honakoa eta helburua Debabarreneko BTT Zentroak dituen ibilbide ikusgarriak ezagutzera emanez partaideei mendi bizikletaz gozatzeko aukera eskaintzea da. Partaideek bi ibilbide izan zituzten aukeran, bata 25 kilometrokoa, eta bestea 45 kilometrokoa. Lokatzak eta euriak ibilbidea are gogorragoa egin zuten arren, Karakateko paraje ederrez gozatzeko aukera izan zuten beste behin bizikleta zaleek.



GAZTEAK ETA SEXUALITATEA

Ez da nerabazarora arte itxaron behar sexu-hezkuntza egiteko, jaitzen garen momentutik jasotzen dugu sexu-hezkuntza. Umea mutila bada, erori eta negar egiten hastean malkoak sikatu eta gora igotzeko esaten diogu, aldiz neska bada, goxo-goxo hartuko dugu eta hitz maitagarriak esango dizkiogu hobeto sentitu ahal izateko. Txikitatik mezuak bidaltzen dizkiegu haurtxoei (kontzienteki edota ez kontzienteki) mutil eta neska moduan nola jokatu behar duten adieraziz eta horrek guztiak neska edota mutil izateko era moldatzen du pixkanaka.

Maiatzean, Gaztelekuko hezitzaileok Gazteen Euskal Behatokiak antolatu eta Emaizeko sexologoek (Gasteizko Sexologia Zentroa) Bilbon eskainitako "Sexu hezkuntza gazteekin. Arriskuetatik haratago" ikastaroan parte hartu genuen. Bertan mezu argiak eman zizkiguten eta guk horietako ideia batzuk transmititu nahi dizkizuegu:

-Sexu hezkuntza aldiro guztiok egiten dugun zerbait da, beraz, transmititzen ditugun mezu esplizitu eta inplizituez kontziente izatea komeni da. Adibide bat jartzearren, haurtxoa bere gorputza esploratzen ikusten badugu (bere genitalak ukitzen adibidez) horren aurrean azalduko dugun jarrerak berebiziko garrantzia izango du, haurrak zerbait txarra egiten duen mezua jaso dezakeelako edota ona den zerbait egitearena. Egunerokoan (familia, lagun, bizilagun, hedabide, musika-letra eta beste hainbat tokitatik) jasotzen ditugun mezu horiek denek eragin handia izaten dute gure izaera, jarrera eta jokabideetan.

-Sexualitatearen inguruan hitz egitea, pertsonen inguruan hitz egitea da, ez baitago pertsonarik sexualitatearik gabe. Neska/mutil, gizon/emakume izatea, izaki sexuduna izatea da, beraz, sexualitatea bizitzaren parte da.

-Sexualitatea zabala eta plurala da, pertsona-aniztasun haina sexualitate-aniztasun dago.

-Sexualitate-hezkuntzan helburu nagusia honakoa litzateke: norberaren sexualitate, erotikaren bizipen, eta berezitasunetatik abiatuz, ONDO SENTIARAZTEA bultzatzea eta, horrekin batera, desio ez dituzten egoerak ekiditen laguntzea (haurdunaldi, gaixotasun, indarkeria, etab.ak). Eta, horrekin



batera, NORBERAREN EZAGUTZA bultzatzeaz gain, norbera ONARTZEN eta norbere bizipenak BIZITZEN eta ESPRESATZEN (erotika) ikasi dezaten laguntzea.

Hau dena gogoan, sexualitatearen gaiari aste bat eskaini diogu Gaztelekuan. Gure oinarrizko helburua gazteekin era informal eta erlaxatu batean sexualitateaz hitz egiteko aukera ematea izan da. Dinamika ezberdinen bitartez, gazteen sexualitatearen inguruko iritzi, aurreiritzi, kezka, beldur, curiositate, mito edota bizipenak partekatu ditugu. Gure ekarpena xumea izan den arren, gazteen garapenerako oso garrantzitsua den ikaskuntza bultzatu dugula uste dugu: batetik, sexualitatearen inguruan hitz egin daitekeelako mezua igortzea eta bestetik, barnean ditugun zalantza, pentsamendu, beldur eta beste hainbeste kontu ingurukoekin KONPARTIUZ gero asko ikasi eta pertsona moduan asko garatu gaitzkeela transmititzea.

Debako Gaztelekua

Debako X. Basatxori Kantarien Txapelketa, La Lubinaren eskutik

Basatxoriak kantari ibili ziren Errotazarren, pasa den ekainaren 7an. Futbol Zelaian burutu zen Debako Basatxori Kantarien X. Lehiaketa eta bertan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Errioxako txoriek hartu zuten parte. Txapelketa goizez burutu zen, eguraldi kaskarrarekin, eta hiru orduz luzatu zen. Dena den, publiko handia bildu zuen hitzorduak eta, beste behin ere, epaileak ere fin aritu ziren, txoriek eskaini zituzten kantuen kalitatea eta lehiakortasuna atentzio handiz neurtu nahian.

Guztira 80 txori aritu ziren lehiaketa (txokak, kardantxuloak eta mistoak), eta Euskadiko Ehiza Federakuntzaren araudia jarraituz egin zen lehiaketa. Eibarko eta Navarreteko (Errioxa) txoriek lortu zituzten lehenengo postuak.

Kardantxuloen modalitatean, Jose Luis Fernandez eibartarrak jantzi zuen txapela, 70 puntu lortu zituen txoriarekin. Eta Debako La Lubina elkarteak Jose Azpiazu hamargarren gelditu zen. Kardantxulo mistoetan, Eibarko Francisco Javier Luque nagusitu zen; eta txoken sailean, aldiz, Andres Garzón (Errioxa) izan zen irabazlea. Errioxakoa, gainera, lehenengo postuan gelditu zen mistoen kategorian ere, eta bigarren irabazlea Eugenio Garcia debarra izan zen.

Bestetik, basa-kardantxuloentzako atal bat ere izan zuen lehiaketak, eta Joseba Iriando debarraren txoriak irabazi zuen lehenengo saria.



La Lubinako Antonio Iriando laguntzaile fina (ezkerrean) eta txapelketa irabazi zuen Jose Luis Fernandez eibartarra.

Txapelketa La Lubina elkarteak antolatu zuen, Debako Udalaren laguntzaz. Lerro hauen bitartez, beraz, eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari, emandako babesarengatik zein egindako ekarpenarengatik. Eskerrik asko, era berean, azken urteotan laguntza eskaini diguten enpresa, komertzio, taberna eta lagun guztiei ere!

Bittor Arizmendiarieta



Agenda

Uztailak 27, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Uztailak 28, larunbata

-**Debako Aitzuri eta Zumaiaiko San Pedro abesbatzen kontzertua.** Debako Santa Maria Elizan.

Abuztuak 4, larunbata

-9:00etatik 13:00etara. **Merkatu txikia.** Baserritarren azoka egingo da. Bertan, garaian garaiko produktu freskoak, naturalak eta herrikoak erosteko aukera izango da.

Abuztuaren 4tik 8ra

-**Kopraixak Itziarren.** Egitaraua ohiko bideetatik ezagutaraziko da.

XXIX. UDAKO MUSIKALDIA SANTA MARIA ELIZAKO KLAUSTROAN

- **Abuztuak 2,** osteguna: David Sagastume kontratenorea eta Daniel Oyarzabal klabea.

-**Abuztuak 9,** osteguna: Thomas Ospital&Laurent Dupéré.

-**Abuztuak 23,** osteguna: Isasi Kuartetoa.

-**Abuztuak 30,** osteguna: Secretum.

*Oharra: Musikaldiaren baitan antolatutako emanaldi guztiak klastroan burutuko dira, eta iluntzeko 20:30ean emango zaie hasiera.



Erakusketak

-**Iñaki Larrañaga artista eibarraren "Laino giroa" izenburuko margo erakusketa,** Santa Maria Elizako klastroan. Uztailean eta abuztuan egongo da ikusgai. (Informazio gehiago

aldizkariko 7. orrialdean duzue).

*Ordutegia: asteartetik larunbatera: 11:00-13:00/17:00-19:00. Igande eta jaiegunetan, berriz, 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaroak

-**Debako Arte Eskola.** Zabalik dago Debako Eskulangintzarako Irakaskuntza Zentroan datorren ikasturtean matrikulatzeko epea. Informazioa: www.debarte.net atarian edo 943 19 18 04 telefonoan.



Lehiaketa

-**Zuhatza Euskara Elkarteak udako postal lehiaketa** antolatu du aurten ere. Bi lagunentzako afari goxo bat dago jokoan! Animatu parte hartzera! Postalak irailaren 14a baino

lehen bidali beharko dira. Lehiaketaren oinarriak eta informazioa, aldizkariko 10. orrialdean. Edo euskara elkarteko 943 19 13 83 telefono zenbakian.

Udako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak **udako ordutegi berezia** izango du abuztuan. *Liburutegi orokorra: astelehe-

netik ostirala bitarte, 9:30etik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:30etik 13:00ak arte.

Zamalanei dagokien ohar berezia

Debako Udalak jakinarazi duenez, "dendariei eta herritarrei kalteak ekiditeko", goizetako karga eta deskargarako tartea 13:00ak arte luzatu da.

"Trafikoa guztion arazoa denez, gure betebeharra

da, ahal den neurrian, konponbidean laguntzea; horregatik, zentzuz erabili behar da ibilgailua, karga eta deskargarako tartean, oinezkoentzako gunean ahalik eta gutxien sartuz", azaldu du.




 Nº. 379
Higiezin Zerbiztuak
 Aholkularitza
 Higiezin Agentzia
 Komunitateen administrazioa
 Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
 Apartado 3
 20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
 Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201

BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat gardian.

09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikun.

**Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30**

OHARRA:

Gabeko farmazia zerbizua Elgoibarrera Deba, Mendaro, Mutriku eta Soralezeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



KALITATEA
Entesa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186



MAZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana



haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.

LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Gure hizkuntzak har dezan arnas...

